

## Euskalingua 27

### Aurkezpena

Irakurle on hori,

*Euskalingua* 27k bi artikulua ditu, bata prosodiaren bariazioari buruzkoa, eta bestea hizkuntzaren aldakortasunari buruzkoa; biak izan dabe aztergai Larrabetzuko hizkera. Lehenengoan I. Gaminde, U. Gaminde, A. Olalde eta A. Etxebarriak isiluneak, muga-tonuak, hizketa-abiadak Larrabetzuko euskararen balio bereizgarriak dauan aztertu dabe. Bigarrenean, I. Gaminde, A. Olalde, A. Etxebarria eta U. Gamindek Larrabetzuko hizkera aztertu dabe, azentuan eta intonazioan aldakortasunik dagoen jakiteko.

Iñaki Gaminde, Ursua Gaminde, Ander Olalde eta Aintzane Etxebarria ikerlariak *Larrabetzuko euskeraren prosodiaz* izeneko artikulua, edo zehatzago esanda, prosodiaren bariazioa ikertzen dauan artikulua aurkeztu dabe. Bertan Larrabetzuko hizkeraren talde prosodikoak, eten motak, muga-tonuak eta hizketa-abiada adinaren eta generoaren arabera aztertu ditue, hamabi lekukoren ekoizpenetan. Lekuko honeek adinaren eta generoaren arabera banatuta, ebatzi dabe identifikatutako diferentziak estatistikoki esanguratsuak izan ez arren, badirela joera edo tendentziak

Iñaki Gaminde, Ander Olalde, Aintzane Etxebarria eta Ursua Gamindek *Hizkuntza-aldakortasuna Larrabetzuko azentuan eta intonazioan* izeneko artikulua ekarri deuskue. Izenak dinoen moduan, hizkuntza-aldakortasuna izan dabe aztergai. Oinarritzko esaldien intonazioa eta singularra eta pluralaren arteko azentu bereizgarria aztertzeke, 24 hiztun aukeratu ditue, adinaren arabera, bi taldetan, gazteena eta edadekoena, banatuta. Intonazioa aztertzeke, adierazpen esaldiak, bai/ez erantzundun galderak, oihartzun galderak, etab. dituen galdeketa bat prestatu dabe eta azentuaren bereizgarritasun irizpiderako, galdera multzo bi. Landa-lanaren eta laborategiko lanaren ondoren, ondorizatu dabe adinak badauala eragina aldakortasunean, ez oster, generoak.

*Euskalingua* 27ko artikuluan gaiei eta eurotarik jaso daitekeen informazioari interesgarri baizenbaliagarri iritziko deusezulakoan, hurrengo zenbakira arte agurtzen zaituegu.

Aulestin, 2015eko azaroaren 30ean

Lorea Unamuno [lorea.unamuno@ehu.eus](mailto:lorea.unamuno@ehu.eus)

Maribi Unamuno [victoria.unamuno@ehu.eus](mailto:victoria.unamuno@ehu.eus)

Koeditoreak